



Ormaiztegi Udala

Udal1-batzarre
E-19.13.05

2019eko abenduaren 18ko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE EZOHIKOA

ORMAIZTEGIIn, 2019eko abenduaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakaritzapean BATZARRE ezohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- Dunixi MURUA ANTIA Jna.
- Juan LOBATO AMADO Jna.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.
- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Agustín GILABERT MOLINS Jna.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.

Segidan Lehendakariak hasiera eman dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik gehienak bertaratu direnez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

...//...
E-19/13-01



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-19.13.06

...//...

LEHENENGO PUNTUA:

03/2019 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala badagokio.

Idazkariak adierazi du Kreditu Aldaketa kredituen transferentzia bitartez egin dela azkenean eta, beraz, ez dagoela Udalbatza Osoak onartu beharrik, ezta GAOn argitaratu beharrik ere. Hala ere, Ogasun Batzordean aztertu dela eta, esan bezala, 3.000 € transferitu direla Familia Esku-hartzetik Bide Publikoetara (2.000 €), Energia eta ur hornidurara (800 €) eta Maileguaren interesetara (200 €).

Udalkideek ontzat eman dute azalpena eta ez da galderarik edo bestelako ekarpenik izan.

BIGARREN PUNTUA:

2020. urteko ekitaldiko Udai Aurrekontuaren hasierako onespena, hala badagokio.

Idazkariak Udal Aurrekontua eta berari lotutako Eranskinak eta dokumentu osagarriak jarri ditu udalkideen esku. Alkateak azalpen orokor bat eman du aurtengo aurrekontuarekiko izango diren aldaketen inguruan. Ondoren, Asier Etxarri zinegotzi jaunak Lorezaintzako Kontratuaren prezioaren igoeraz galdetu du. Jon Enrique alkate jaunak erantzun dio udalerriko hainbat eremutan diren zuhaitzen kimaketa lanak gehitu zaizkiola aurreko kontratuaren prestazioei eta horrek kontratu berria garestitu egin duela. Asier Etxarri jaunak ontzat eman du azalpena eta beste galderarik edo oharrik dagoen galdetu du alkateak.

Ogasun Batzordean azterturiko dokumentazioa izanik, ez da beste ekarpenik gaineratu eta bozketa egiteari ekin zaio.

Bertaratu diren udalkide guztiek aldeko botoa eman dute, hortaz, ahobatez onartu da behin-behinean 2020. urteko Udai Aurrekontua.

HIRUGARREN PUNTUA:

2020. urteko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa behin-behinean onestea, hala badagokio.

Idazkariak azaldu du aurtengo Lanpostuen Zerrendarekiko eta Plantilla Organikoarekiko aldaketa nagusia Kultura Teknikariaren plazaren sorrera izan dela.

...//...

E-19/13-02



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-19.13.07

...//...

Plazaren sorrerari dagokionez, espedientea jarri du udalkideen esku eta bertan jasotzen den txostenaren azalpena eman du. Bereziki azpimarratu du kultura teknikariak betetzen dituen eginkizunak Legeak funtzionarioei erreserbatzen dizkien funtzioen artean daudela eta, ondorioz, kontratu administratibo bitartez zerbitzu moduan lizitatzea ez dela zuzena.

Eztabaida ireki da eta hitza eman zaie udalkideei. Ez dute ezer erantsi eta bozkatzeari ekin zaio. Bertaratu diren udalkide guztiek aldeko botoa eman dute eta, ondorioz, ahobatez onartuta geratu da behin-behinean.

2020. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

ESTATU GAIKUNTZAKO FUNTZIONARIOAK

<i>Lanp. Izena</i>	<i>Plaza kopurua</i>	<i>Taldea</i>	<i>DO Maila</i>	<i>Egoera</i>	<i>Oharrak</i>
Idazkari-kontuhartzailea	1	A1	22	B*	**

B*: Bitartekoa

**Berariazko merezimenduak

ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA

— Administratibo Azpieskala

<i>Lanp. Izena</i>	<i>Plaza kopurua</i>	<i>Taldea</i>	<i>DO Maila</i>	<i>Egoera</i>	<i>Oharrak</i>
Administraria	1	C1	14	Jabetzan	-

— Laguntzaile Azpieskala

<i>Lanp. Izena</i>	<i>Plaza kopurua</i>	<i>Taldea</i>	<i>DO Maila</i>	<i>Egoera</i>	<i>Oharrak</i>
Administrari Lag.	1	C2	11	Jabetzan	-

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA

— Zerbitzu Berezien Azpieskala

<i>Lanp. Izena</i>	<i>Plaza kopurua</i>	<i>Taldea</i>	<i>DO Maila</i>	<i>Egoera</i>	<i>Oharrak</i>
Kultur teknikaria	1	A2	17	Hutsik	-

...//...

E-19/13-03



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-19.13.08

...//...

LAN KONTRATUPEKO PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Plaza kopurua	Taldea	DO Maila	Egoera	Oharrak
Gizarte Langilea	1	A2	17	Finkoa	A*

A*: iraungitzeko

2020. EKITALDIKO LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedikazioa	Taldea	Maila	O. espezifiko	H.E	Derr. Data	Best.	Oharrak
Idazkari-kontuhartzailea	FHE	Idazkaritza-Kontuhartzaitza	Graduko unibertsitate titulua	L	%100	A1/A2	22	25.401,74	4	92-12-31	Funtz.	*
Administraria	Administ. Orokorra	Adm.	Batxilergoko titulua edo titulu teknikoa/2.mailako F.P.	L	%100	C1	14	19.867,74	3	92-12-31	Funtz.	
Administrari Lag.	Administ. Orokorra	Admin. Lag	Derrigorrezko 2. hezkuntzan graduatu titulua, eskola graduatua edo F.P. 1. maila	L	%100	C2	11	17.752,66	3	92-12-31	Funtz.	
Kultura teknikaria	Administ. Berezia	Zerbitzu Bereziak	Goi mailako teknikari titulua/diplomatura	L	% 75	A2	17	20.879,76	4	19-12-31	Funtz.	

*Berriazko Merezimenduak

LAN KONTRATUPEKO PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedikazioa	Taldea	Maila	C. espezifiko	Derr. Data	Best.	Oharrak
Gizarte laguntzailea	-	-	Goi mailako teknikari titulua/diplomatura	L	2/5	A2	17	20.879,76	92-12-31	BB	a

a: iraungitzeko

...//...

E-19/13-04



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-19.13.09

...//...

LAUGARREN PUNTUA:

2020ko Batzaraldien egutegia eta Udalaren lan egutegia.

Idazkariak alkatearen eta zinegotzien eskura jarri ditu bi egutegiak, aurretik Ogasun Batzordearen bileran aztertu zirenak, eta hitza eman die udalkideei.

Ez da esateko ezer izan eta bozkatu egin dira egutegiak. Aldeko botoak izan dira guztiak eta onartuta geratu dira.

BOSTGARREN PUNTUA:

Plan ekonomiko-finantzarioa betetzat emateko komunikazioa

Alkateak azaldu du Foru Aldundiak Osoko Bilkurari idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena komunikatzeko beharra jakinarazi duela eta horregatik ekarri dela gai hori bilerara. Ondoren hitza eman dio idazkari-kontuhartzaileari txostenaren edukiaren berri emateko.

Idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi du 2017ko aurrekontuak ez zuela gastu araua betetzen, Eskola Zaharren eraikina eraberritzeko gastuak legez ezarritako muga gainditzen zuelako. Hori justifikatzeko Plan Ekonomiko-finantzieroa aurkeztu zela Aldundian eta han ontzat eman zutela azaldu du.

Aurten 2018ko ekitaldiaren likidazioa egitean, argi geratu dela esan du gastu araua altxortegi gerakinarekin ordaindu zela eta, orain Aldundira bidali beharreko txostenean adierazten denez, berrmatuta dagoela Udalaren finantza iraunkortasuna datozen ekitaldietarako, ezusteko eragiketarik gertatu ezean. Udalkideen esku utzi du txostena idazkari-kontuhartzaileak.

Galderak egiteko aukera eman zaie udalkideei baina ez da galderarik izan.

SEIGARREN PUNTUA:

Kontuhartzaileak Udalaren finantza iraunkortasunari buruz emandako txostenaren Komunikazioa Udalbatzari aurkeztea

Idazkariak adierazi du bikoiztu egin duela puntu hau bilera deia egitean baina aurreko puntuan jasotzen dela jaso beharrekoa.

ZAZPIGARREN PUNTUA:

HAPOaren 1. aldaketa puntuala egiteko dokumentuaren hasierako onespena, hala badagokio.

...//...

E-19/13-05



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-19.13.10

...//...

Aurretik Hirigintzako Batzordearen bileretan aztertu den dokumentua aurkeztu zaie udalkideei. Eztabaida ireki da baina ez da ekarpenik izan. Bozkatzeari ekin zaio eta ahobatez onartu dokumentua.

ZORTZIGARREN PUNTUA: **Erreguak eta galderak**

Ez da erregurik ez galderarik izan.

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:30 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2019ko abenduaren 19an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin.: Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...
E-19/13-06